



Anaitasuna

1953 -1982

30 urteko historia. Ekoizpen materiala

<i>Hamarkada</i>	<i>Urteak</i>	<i>Zenbakiak</i>	<i>Orrialdeak</i>	<i>Karakterearak</i>	<i>Artikuluak</i>
1953-59	7	16,0	5,2	4,2	7,5
1960-69	10	26,5	12,0	15,2	18,8
1970-79	10	51,5	66,3	67,6	64,0
1980-82	3	6,0	16,5	13,0	9,7
1953-1982	30	420	8.018	27.628.000	6.399



Sortzailea: Imanol Berriatua

- 1953ko ekainaren lehen zenbakia Forun
- Gerraosteko lehen euskal aldizkaria Bizkaian
- Erlijioa eta euskara sustatzeko, bere bi “alienazioak”
- Denboraren poderioz euskararen ildoak gaintzen da
- Imanol bera euskararen kalitateaz arduratu zen beti

Imanolen eredu periodistikoa, Anaitasunaren marka

Eguneroko eta kaleko gaiak:

“gauza asko esan gura deusut: baserrikoak, kalekoak, frabrikakoak, unibersidadeak, futbolezkoak, ziñeskoak, ezkontzazkoak, gaztarozkoak” (1. zenbakia).

Erdara usaineko berbak

“Ogeigarren gizaldiko gauzak nire agotik entzun gura dozuz. Pozarren egingo deusut. Baina orretarako, erdera usaiñeko berba naikoa erabili bear, zuk zeuk kaleko berbetan esaten dozuzanak. Zergatik ez?” (1. zenbakia).

Eredu ingeleseko euskara

“ANAITASUNAK aspalditik artu dau bere bidea. Euskera errezean idatzi gura dogu... Badakigu gaurko euskerea erbesteko berbaz beterik dagoana... Jakin daiela Eibar eta Bermeo´ko euskaldunak euren izkuntzea ona dala, euren pentsamentu guztiak... EUSKERAZ agertu leikeezalako, naizta euren berbeta erbesteko itzez josita egon. Bardin egiten dabe ingelesak, euren izkuntzako berbarik geienak kanpotik artuak izan arren (3. urtea).

Gehigarria izatetik newsmagazinera

- Sorrera: “Suplemento a la Hoja ANAITASUNA de Guipúzcoa”.
- 1967tik aurrera beregaina da
- Izen ofiziala: ANAITASUNA-Bizkaia
- Sekula ez da izan “Anaitasuna” markaren jabe
- 1976: newsmagazine (kazetari mailako estatus jaso eta moderno)

Zuzendaritza

<i>Izena</i>	<i>Herria</i>	<i>Iraupena</i>	<i>Urteak</i>
Imanol Berriatua (Alfontso Irigoien)	Forua/Bermeo	24 hilabete	1953-55
Ikasle bizkaitarrak*	Bilbo	20 hilabete	1955-57
J. Azurmendi/G. Garitaonandia	Arantzazu	115 hilabete	1957-66
Anjel Zelaieta (Josu Torre)	Bermeo	21 hilabete	1967-68
Joseba Intxausti	Bilbo	23 hilabete	1969-71
Joan Mari Torrealdei (Antton Iñurritegi)	Bilbo	18 hilabete	1971-73
(Zuzendaritza kolektiboa)	Bilbo	20 hilabete	1973-74
	Bilbo	29 hilabete	1974-76
	Bilbo	25 hilabete	1976-78
	Bilbo	46 hilabete	1978-82

* Arantzazun, ikasle bizkaitarren taldean zuzendari: Antonio Zubizarreta, Kepa San Pedro, Juan Arriola, Joxe Manuel Uriagereka, Joan Mari Torrealdei, besteak beste.

Maiztasuna

<i>Maiztasuna</i>	<i>Zenbaki kopurua</i>
• Hamabostekari	248
• Hilabetekari	177
• Bihilabetekari/Noizbehinkari	13

Idazle eta kazetarien lana

- 6.395 artikulu
- 4.784 sinatuta (% 75)
- Sinatu gabeko lankidetzak: 1.611 (% 25)
- Identifikatuak: 1.199 idazle edo kazetari desberdin

Idazle emankorrenak

<i>Idazlea</i>	<i>Artikuluak</i>
Xabier Kintana	308
Jose Ramon Etxebarria	248
Xabier Gereño	227
Imanol Berriatua	204
Joan Mari Torrealdei	153
Anjel Zelaieta	103
Joxe Azurmendi	83
Joseba Intxausti	78
Paulo Agirrebaltzategi	75
Jose Luis Lizundia	71

Gaiak

<i>Ordena</i>	<i>Gaia</i>	<i>Zenbakia</i>	<i>%</i>
1	Politika	942	14,7
2	Hizkuntza	759	11,9
3	Orotarik	728	11,4
4	Erljioa	704	11,0
5	Kultura	639	10,0
6	Albistegiak	594	9,3
7	Lit. + Liburua	484	7,6
8	Ekonomia	342	
	5,3		
9	Hezk. + Irakask.	327	5,1
10	Zientzia	219	3,4
11	Anaitasunaz	207	3,2
12	Gizartea	193	3,0
13	Herriak +	101	1,6
14	Komunikabideak	90	1,4
15	Filosofia	70	1,1

Anaitasuna eta Euskaltzaindia

1959, ekaina (Euskaltzaindiaren azalpena euskal hitzei buruz)

EUSKAL AKADEMIA

Importantzia aundiko deklaraziñoak egin ditu euskal akademiak, joan dan apirillean, euskerearen gaiñean...

Akademiak berak publikatu eban lez argitaratuten dogu numeru onetan, euskeraz eta erderaz, Bizkai-ko irakurleak obeto ulertu daien.

Gutziz konforme gagoz euskaltzaindiaren deklaraziñoagaz eta Luis Mitxelena akademikoaren esplikaziñoakaz.

1961, abendua (Imanol Berriatua euskaltzain laguntzaile)

Anaitasuna-n eskribietan dogunok, beti euki deutsagu **Euskal-Akademiari errespetu aundia** ; eta pozarren errezibietan zan doguz beti bere orientaziño guztiaz.

1969, urria (Euskaltzaindiaren agiria dela eta)

Esan behar dogu, guk be, Arantzazun **Euskaltzaindiak ontzat artutako normak geure** egin nahi doguzala, bertako askoren exenplo txarra gora-behera.

1976, apirila (Anaitasunak bere idazleei proposatu dizkien zenbait idaztarau)

Anaitasunak, oinharritz, Euskal Akademiak erabagi dituen idaztarauak **onhartzen ditu**, hura gure erakunderik printzipalena eta horretarako egokiena delakoan.

Hala ere, arau horietako batzu, gure ustez behar bezain **zehatz eta praktikoko** gertatzen ez diren zenbait kasutan, eta Akademiak berak uzten duen askatasunaz baliatuz, haik aldatzen ditu, euskara idatzia egokiago eta zehatzago egiteko gogoz.

1976, maiatza (idaztarau proposamenak)

Anaitasunak bere idazle eta irakurleei goiko arauok betetzen ahalegin litezen eskatu nahi lieke; eta Euskaltzaindiari, aurreranzko pauso gisa, **proposatzen dizkio**.

Bizkaieratik euskara batura, urratsez urrats

1968

“ANAITASUNA, bete betean dago batasunaren alde. Ermuko batzarrean esan genduan lez, prest gagoz, alik lasterren euskera batuari orrialde bat eskinteko. Alandagutzitze, aldizkari onetan geienbat erabiliko dogun euskerea, oraiñartelez, oestealdekoa izango da: bizkaiera deituten jakona.. Sendotu Bizkaiko euskalkia: orixe da gure asmoa. Oitu daitezala bizkaitarrak, euskeraz irakurten. Bizkaieraz leiduten, euskera ori eurentzako errezena da eta”.

1969

“ANAITASUNA-k behintzat, Bizkaiko aldizkaria izan arren, **Bizkai aldeko batasuna egin gura dau**, Euskalerriko batasunari begira, astiro astiro, euskereak iraungo badau, guztiok beteko dogun euskera batua lortu daigun... Guk be, Arantzazun Euskaltzaindiak ontzat artutako normak geure egin nahi doguzala, bertako askoren exenplo txarra gora-behera”.

1970

“Bizkaiera idatziaren batasuna ANAITASUNA aldizkarirako” (1970):

“Orain urte bete, erregela batzuk argitaratu genduzan, aldizkari honetan erabiltzen dan bizkaierari batasuna emateko. Orain bigarren pauso bat eman gura dogu, geldiro geldiro Euskara baturantz joan gaitezen”.

1971

-“ANAITASUNA aldizkarian agertzen den euskara batua ahalik eta euskaldunik gehienek errazki irakur dezaten, zenbait norma argitaratzen ditugu, idazleek kontuan har ditzaten”.

(...)

-“Bigarren etapa hau bete ondoren, hirugarren pauso bat emango dugu, euskara batuari are lotuago jarraiturik”.

Bitxikeriak

Erabaki guztiz harrigarria

**Parisetik idazten dauku Jean Miranda euskal idazle ospetsuak,
jarraiko modu honetan ANAITASUNARI uko egiten diola esanez:**

7, rue Jules Dumlen

Paris XX

le 9 juillet 1971

Messieurs et chers compatriotes,

Je vous ai écrit il y a quelques jours, mais en me trompant d'adresse. Bien que ma première lettre soit destinée, je pense, à vous parvenir un jour, je préfère m'adresser à nouveau à vous, en répétant d'ailleurs à peu près les mêmes termes. Je reçois depuis quelques mois ANAITASUNA, revue à laquelle je ne me suis jamais abonné et que je jette sans la lire, étant fasciste (bien que basque) et détestant le christianisme, ou du moins la démocratie dite chrétienne, en fait judaïque. Je vous prie de donner suite à ma demande.

Comme je vous le disais déjà, excusez de vous écrire en français; vous trouverez, je pense, aisément un Interprète. Et par ma part l'euskara, que je continue de pratiquer avec ma famille souletine, m'est devenu étranger, comme langue politique et de culture.

Veillez croire à mes sentiments dévoués.

J. Miranda

1970, uztaila (ERRIA VERSUS EUSKALTZAINDIA)

“ERABAKI NAGUSIARI”-RI ERANTZUKI

Zeruko Argiari aldizkariaren 383-384 zenbakian, lehenengo orrialdean, “Erabagi Nagusia” izenburuarekin HERRIA, GOIZ ARGI, ZERUKO ARGIA, AGUR, KARMEI, KILI-KILI, LOYOLA IRRATIA-k LA VOZ DE GUIPUZCOA-n irratia saioak egiten dituztenek izenpeturik, esaten da: “Euskeraren batasuna egiten astera goaz...”. Zertana eta nolakoa “erriak erakustsiko digu”. “Erria” esatean, hau esan nahi da: “ikasten jardun gabe euskera dakien erria”.

Gure uste apalean esan beharra dago, “erriak erakustsiko digu” hitzok zeharo kontzeptu abstrakto bat direla, airean eta hutsean gelditzen direnak. Euskeraren batasuna, guk dakigunez, hizkuntzalariek egin behar dute, eta *egiten hasiak dira aspaldi...*

Erabagi Nagusi hori euskal kazeta batzuek hartzean, guri ez daukute eritzirik eskatu, ezta hartzekotan zirenik esan ere. Goian aipatutako aldizkarietaz gainera, ba dira beste aldizkari batzuk Euskal Herrian: EUSKERA (Euskaltzaindiaren lan eta agiriak), EGANA, JAKIN, PRINCIPE DE VIANA, JAUNAREN DEIA, OTOIZLARI, GURE HERRIA, DANTZARI, TXISTULARI, ARANTZAZU, REDENCION.

Erabagi Nagusi horren aurrean, gure hizkuntzalariek zeharo harriturik gelditu dira nonbait. Antza denez, haiek ez dute ezer egin orain arte; eta aurrerantzean ere ez dadukate zer eginik, “erria” izeneko jaun baten eskuetan gelditu baita beren eginkizun berezia”.

BILBOKO KANTUAK

— (Las Bilbainadas en vascuence)

UN - IN-GLES - VI-NO - A - BIL-BA-O,

In-gles - bat - da-tor - i-kus-ten,

por - ver - la - rí-a - y - el - mar:

gu-re e-rre-kea - Bil-bo-ra:

al - ver - sus - chi-cas - bo-ni-tas

nes-ka - po-li-tak - i-ku-si

ya - no - se qui-so - mar-char.

e-ta ez-tau i-tzu-li - gu-ra.

Va-le - más

Gu-rao - dot

u-na - bil-bai-ni-ta,

nes-ka - bil-bo-ta-rra,

con - su - ca-ra -bo-ni-ta

be-re - ar-pe-gi e-de-rra

y - su - gra-cia - y - su - sal, (dos veces)

e-ta - deu-kon - ga-tza, (birritan bertso au).

que - to-das - las a-me-ri-ca-nas,

a-me-ri-ka-na - da-nak - ba-ño,

con - su in-men-so - cau-dal (tres veces).

e-ta eu-ren - di-ru-tza. (irutan bertso au).

A-PA-GA LUZ MA-RI-PO-SA A-PA-GA LUZ,

A-ma-ta ar-gi - mi-txe-le-ta - a-ma-ta ar-gi,

que - yo - no - pue-do - vi-vir - con - tan-ta - luz,

e-zin - nai-te-ke - bi-zi ain-bes-te - ar-gi-gaz.

Po-bre-ci-tos - los - bo-rra-chos

Gai-xo-ak - kan-po-san-tu-an

que es-táis - en - el - ce-m-po - san-to,

za-go-zen - moz-kor - za-le-ok,

que - Dios - os - ten-ga en - la - glo-ria

e-gon - zai-te-ze - ze-ru-an,

por - ha-ber - be-bi-do - tan-to.

or-di-ok - ar-dao - za-le-ok.

A-pa-ga - luz - ma-ri-po-sa a-pa-ga - luz,

A-ma-ta ar-gi - mi-txe-le-ta - a-ma-ta ar-gi,

que - yo - no - pue-do - vi-vir - con - tan-ta - luz:

e-zin - nai-te-ke - bi-zi ain-bes-te - ar-gi-kin:

Los - bo-rra-chos - en - el - ce-men-te-rio

Moz-kor - za-le-ak - kan-po-san-tu-an

Jue-gan - al - mus.

Mu-sean - e-gin.

EL - VI-NO - QUE - VEN-DE A-SUN-CION

Ia-so-nek - deu-kon - ar-daoa

ni es - blan-co - ni - tin-to - ni - tie-ne - co-lor

ez-ta - baltz - ez - zu-ri - ez - ko-lo-re-rik

A-sun-ción - A-sun-ción:

Ia-so-ne - Ia-so-ne:

e-cha - me-dia - de - vi-nó a - ca-ñón.

bo-ta ar-daoa - ko-bra-tu - ba-rik.

Ateak nola?

ANAITASUNA errebitaren Zuzendari jauna:

Neure jaun ez-azaguna:

Zure ordezeko den (hala irakurtzen dut errebita horren ale bakoitzean) Aita Imanol Berriatuaren bitartez, karta hau bidaltzeko ohorea dadukat. Karta honen arrazoia, ene azken liburua den LAU TEATRO ARESTIAR de lakoaren kontra-azalean erraten dena da: errebita horretarako atea hertsai zaizkidala. Ohar hori ez dut nik egina, ene editorearen bizkar jar ahal bailiteke; baina, hala ere, nik ere suskribatzen dut bertan errandakoa, «Anaitasuna-ko atea hertsai bide zaizkidala», (eta kon-tura zaitetz, hor bide guztiz egoki bat ezartzen dela).

Egia da inoiz ez zaidala erran, ezin eskriba dezake-dala zuen orri-aldaetan. Baina, erretolika handiko andre baserriarraren antzean, eman egin zait aditzera: «Ez diotsut hemendik joan zaitzela, baina atea hor duzu».

Zeren zuen errebita horretan egin zaidana bezalako zentsura bezalakorik ez baitu orain artean egundo neure lumaren zorrotzasanak ezagutu. Artikulu ongi landuak, poesia koadratuak, atzera bota zaizkit; eta, gainera, ez zait batera arrazoi funtsezkorik eman, zergatik ez ziren argitaratzen. Ortografiaz eta morfologiaz aldatu zaizkit neure eskribuak, neure gainean besteek sufritzen ez zuen diskriminazio izugarri bat eginetz; hitzak ere aldatu zaizkit, neure solasaren erran-nahia horrela aldatuz.

Egoera horren aurrean kontuak eskatu nizkien Berriatua eta Quintana jaunei, eta erantzuna pronto etorri zitzaidan: Errebitaren ideologiararen kontrako zer-erranik ez nuela erran behar. Orduan hau eskatu nuen: erran zekidala, ea zein gai ukitu behar ez nituen, eta zein uki ahal nitzakeen. Ez nangoela ni batera konforme zentsurarekin; eskritoreari mintzatzeko libertatea ukatzen baldin bazitzaion, hobe zuela eskritoreak, klasikoen hiztegiak taxutzea edo pinpillpausak kolekzionatzea. Baina

nola niri zorian tokatu baitzait, eskritore izateaz gainera, euskal-eskritea izatea, zentsuraren joko hura ametititu behar nuela, euskararen amorez behintzat, baina aldez aurretik jakin behar nuela lehen errandakoa: joko horren erregelak zein diren. Eta ez zitzaizkidan eman, eskriba nezala, eta eskribuaren gainean, kasu konkretu bakoitzean, emanen zitzaidala ezetzpena nahiz baietz-pena.

Honi deitzen ez bazaio atea herstea, zeri deituko diotzu? Atea zabalik egon da; baina bertatik ene gorputz haragitsua iragan dadin, meharregia da, ez naiz hortik kabitzen. Edo, bestela, atea zabalik utzi duzue, baina ata-aitzinean ata-zakur hortz-handi bat ezarri duzue, zentsura diskriminatorio baten zakur amorratua; eta, nik, jauna, neure ipur-mamiek entero gorde nahi ditut, ez dut nahi ezin zakurren dostailu edo atzeki-gailu izan daitezen.

Hau erran dut: **Zuen atea hertsai BIDE zaizkidala**. Karta honen medioz, neure erran horretatik itzuli nahi naiz atzera. Beraz, karta hau argitara dezazuela eskatu nahi naitzazue zuen errebitan, eta beroni erantzun egoki bat eman diezazue, egiazki zentsura ofizialaren eta eklesiastikoaren gainetik zentsura gogorrago bat degoen zuen errebitan, eta zentsura horren artzaziek zein diren ebakitzen dituzten materialak, nik honela neure eskribuak orientazio finko batetan gerta ahal ditzadan. Neure eskaria betatzen baldin badidazue, esker-onez kunpliturik aitoruko dizuet: **ZUEN ATEAK ZABALIK DITUT**. Bestela, neure errandakoari **BIDE** egoki hura kendu beharko diot.

Zure erranetara gelditzen naiz.

GABRIEL ARESTI

ZUZENDARITZAREN ERANTZUNA: Harrigarri iraditu zaigu, zinez esanik, Arestik eskutitz honetan diokuna, hots, beste inon ez duela eduki, ANAITASUNAK egin omen dion bezalako zentsura gogorrik.

Egia da, ANAITASUNAK zenbait artikulu ez dizkiola onhartu Arestiri, beste inori onhartuko ez zizkiokeen arrazoi berberetatik. Horietako batzuk, irakurlearen argibiderako, LUR editorialak argitaratu dituzten bere «Euskal Literatura 73» izeneko liburuan.

Ortografiaz eta idazteko moduez aldatu zaiona, berari adierazi ondoren egin da, irakurleek hobeki ulertzen.

ANAITASUNAREN ideologiaz ari denez gero, hortxe ukan du Arestik, 1972.eko otsailaren 29an ANAITASUNAK argitaratu zuen Manifestua.

OPORRALDIAK

Tren, unti eta hegazkin
kartelak

Ezkonberri bidaiak
Arazo bidaiak
Xofer gabeko automobil alokatuak

**VIAJES
ECUADOR**

«BLSOKO BIDAI AGENTZIA»

Arriagako Plazan, 1 — Tel. 242468

... Zuen zerbitzutan

(O. A. T. n.º 88)

ANAITASUNA

204 zenb.

1975.eko urriaren 15ekoa

Pelota. 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Euskal Herriaren historiak garai ilun eta larri asko ezagutu du. «Domuit vascones» (euskalunak garaitu zituen) hura sarritan idatzi izan da errege eta militar gidarien kroniketan. Ez «Wisigotuen» garaian bakarrik, bai eta «Frankoenean» ere. Baina behin eta berriro garaitua izateak, Herri baten azpiraezina adierazten du.

Azken urteotan hil diren Euskal Herriko semeak ugari dira: burruka baten aldarean hil direnak, halegia. Atzerriratuak eta espetxeratuak, berriz, milaka. Milaka dira, beraz, beren senideen gain nigar egin dutenak. Baina aspaldiko urteotan jazo gabekoa, orain dela egun gutti gertatu da: Espainiako militarren hauzitegiak bi euskaldun heriotzara bota ditu eta goiz triste batotan garbitu dituzte Estatuaren indar harmatuek. Urrats bat izan da hori Euskal Herriaren azken urteotako historian. Bi euskaldun hauek burutu egin dute, lehenengo espetxeratuak nahiz heriotzara kondenatuak izan diren guztiek egindako bidea.

Tristurazko, haserreko eta ukapenezko hitzak, manifestazioak eta boikotak gertatu dira, aste asaldatu batean, Europan eta munduan zehar, Espainiako Gobernu eta Erregimenaren aurka. Europako Gobernu gehienek beren enbaxadariak etxeratu dituzte. Azkenik Europako Ekonomi Elkarteak (EEEK), Espainiarekin ekonomiazko akordioa berritzeko zeramatzan elkarrizketak eten egin ditu, Portugalari egun berean finantzazko laguntza oparoa eskaini dion bitartean.

Euskal Herriak ez du asaldaterik izan. Bere beldurra, nigarra, baretasuna eta kemena... dena batera ixiltasunean agertu du: elizetan, kaleetan, lantegi hustuetan. Eta horrela, baretasun hortan, bere itxaropenaren deia egin du. Europan nahiz Espainian bota diren oihuek ez dute, Euskal Herriak agertu duen ixiltasun baretu eta kementsuak adina balio. Azkenean geure esperantzaren berri guk eman beharko dugu, eta guk geuk urratu beharko Euskal Herri berri baten bidea.

Gogorkeriaren bidetik ari den edozein talde ezkertiarrek eskuindarren jokia jokatzeko arriskua du, hauek, beren interesak galtzeko zorian daudela ikustean, burua bera galtzen baitute eta probokazio eta mendeku hutsetara jotzen, herriko jendea eta populu langilea bost axola zaielarik. Horregatik ezkertiarrek oso kontuz ibili beharra daukate, eskuindarren energumenokerian ez erortzeko eta horien jokia ez jokatzeko.

Honen guztionen aurrean, indar moral, politikazko, kulturazko eta erlijiozko guztiak galdera hauxe egitera biltzeko ordua dugu: Nora goaz? Ordua da, geure arteko txikikeriak eta txokokeriak alde batera uzteko, eta Euskal Herria benetan hartzen duten indar guztiok bat egiteko. Une larria eta garrantzizkoa dugu oraingo hau. Talde bakoitzak bere taktikari eta estrategiari aurrenik eta derrigorrez eutsi beharrean, euskal herri langilearen beraren bizitzari eusteko ordua da. Denok une batez Euskal Herri berri eta euskal gizarte berri bat nahi dugula aitortu beharrean gaude, eta Herri eta gizarte berri horik bideratzeko elkarrekin batu beharrean.

Nora
goaz?

ANAITASUNA

14. zenb.

1975.eko urriaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Gutako bakoitzak, behin baino gehiagotan galdetu dio bere buruari: egoera larri hontan zer egin? Zer egin behar dut? Zer egin genezake? Gure ustetan, orain bizi dugun hau ere holakoetakoa da, larria. Galnera, irakurleak aldizkariaren zenbaki hau eskuratzen duenerako, ez dakigu zernolako girotan murgildurik aurkituko garen.

Guk ere —eta nik neuk orain zeuon surrean—, dugun egoera kontuan edukita, **zer egin?** galdetzen diogu behin eta berriz geure buruari. Hontan hiru jokabide izan daitezke: irauten, erre, etsi.

ETSI? Jokabiderik erosoena litzateke. Koldarrena ere bai. Zergatik etsi? Esperantzarik gabekoena da etsitzea. Etsituta, ez da deus berririk, ezer handirik eta iraunkorrik eraikitzen.

ERRE? Ekintza gogor batekin, kolpe gotor baten bidez, egoera bat bortxatzea litzateke. Eta, etengabe behartuz, lehertzapena lortzea. Ba dakigu, bai, nor bere buruari eta egoerari «su ematea», aise miretsi egin ohi duela jendeak.

Baina, geure mailan eta geure kasuan, jokaera horri ezin diogu guk eutsi. ANAITASUNAREN zenbaki bakar baten paper piloarekin batera erreko ginateke geu ere.

IRAUN! Irautea erabaki dugu, muga mugan irautea. Aspaldidanik ikasi dugu iraupena estimatzen.

Kazetagintzan ibiliz, etsitzea gure barnearen aurka dos. Erretzea ez dugu eraginkor ikusten. Oraindik ere irautea nahiago izan dugu.

Geure aldizkariaren ahalmenak eta mugak ongi ezagutzen ditugu, eta ba dakigu —hobe ez!— buztinezko zangoak ditugula. Ez guk eta ez zuek ezarritako joko arauak, bestalde, haintzat hartu behar ditugu.

Egoera hontan, bada, eta irautearren, ahal daitekeenaren mugaraino joaten ere ez gara sarritan ausartzen. Eta, beste batzutan, horrialde hontantxe agertu behar zuen editorialarekin bezala, mugak harantzago daudelakoan aurrrera goazenean, «geldi hortxe» oihukatzen digute.

Horregatik, irakurleak ulertuko ahal du gure jokabidea! Irautea hautatu badugu, irakurlearen onerako delakoan egin dugu.

Joan Mari TORREALDAY

IRAUN!

Anaitasuna eta Bilbo

Anaitasuna Bilbon

- 13 urtetan izan du egoitza Bilbon:
bizialdiaren % 43´3
- Ekoizpen gehiena, Bilboko garaikoa da
 - Zenbakietan % 57,5
 - Artikuluetan % 73,7.

Bilbo Anaitasunan

- Euskaltzaleen Batzarrak Bilbon, Luis Villasante, 1958.
- Bilbon eskola geiago bear dira, Karmel, 1966.
- "Bilbo egaleko kontuak", Kamiñazpi, 1967.
- Bilboko Euskal Irakasle Eskola, Xabier Gereño, 1974.
- Bilbo inguruko egurats kutsadura, Jose Ramon Etxebarria, 1974.
- Bilbo eskualdeko hauzo elkarteak: "Metro herritar bat nahi dugu", Xabier Artzelus, 1977.
- Bilbo Handia eta Plan Generalaren sagarra, TALDE, Euskal Estudio Elkarte, 1977.
- Bilboko udalak euskarari muzin?, Borja Barandiaran, 1980.
- Bilbo gurea. Bilbo zifratan, E.H., 1981.
- Alkatea mintzatzen da, Jon Castañares, 1981


Bilboko idazleak

Gabriel Aresti

Lehen artikulua: 1956 (32. zkia).

Azken artikulua: 1973 (264. zkia.)

Artikulu kopurua: 30




- Ilunpeak argitu bear... 1956.
- Aitaren etxea [Olerkia], 1964.
- Poetei emandako pagua, 1970.
- Euskal teatro zaharrak San Antongo elizan, 1972.
- Euskal asto-lasterrak, 1972.
- Peru Abarka-ren alienazioa, 1973.
- Guztiok dakigu erdaraz; inor ez da idiota, 1973.

Xabier Kintana

Lehen artikulua: 1966 (137. zkia).

Azken artikulua: 1982 (418. zkia.)

Artikulu kopurua: 310



- Jainkoak eztaki euskeraz, 1966.
- Joan Manuel Serrateri idazki idigia, 1968.
- Dibortzioa, bai ala ez, 1970.
- Literatur tradizio baten bila, 1970.
- Pelay Orozkori eskutitz irekia, 1971.
- Gabriel Aresti Segurola (in memoriam), 1975.
- Azken bolada honetako intelektual horiez, 1975.
- Georgia eta Euskal Herria, 1976.
- Euskal kultura norentzat?, 1977.
- Euskara eta politik alderdiak, 1977.

Xabier Gereño

Lehen artikulua: 1967 (143. zkia).

Azken artikulua: 1979 (385. zkia.)

Artikulu kopurua: 229



- Euskera ilgo ote da? Ez, hala nahi ez badogu, 1970.
- Zegaitik ez ule luzeak, 1967.
- Euskera batu baten alde, 1968.
- Euskal abeslari barriak, 1968.
- Kontuz ikastolekin, 1971.
- Irlandaren alderdi ezezagun bat, 1972.
- Politika. Euskal Herriarekin kolonialismorik ez, 1976.
- Euskal ezkerraren garrantzia, 1977.
- Mahoma eta Martin Villa, 1978.

Imanol Berriatua

Lehen artikulua: 1956 (34. zkia.)

Azken artikulua: 1977 (343. zkia.)

Artikulu kopurua: 204



- Ekintza Katolikoa, 1957.
- Sazerdote langilleak, 1959.
- Komunismoaren kokoa, 1960-10.
- Aita Imanol-ek Paris-etik, 1961.
- Aita Imanol-ek Londres-etik, 1961-11.
- Aita Imanol-ek Sierra Leona-tik, 1962-03.
- Dakar, arraintzaleen "goxotegia". Kantauriko euskaldunak be "goxura", 1963-12.
- Taizé ta ekumenismua, 142. zk., 1966-12: [8].
- Bizkaiera idatziaren batasuna "Anaitasuna" aldizkarirako (1970), 1970.
- Israeleko miraria, 1977.

Jose Ramon Etxebarria

Lehen artikulua: 1971 (220. zkia).

Azken artikulua: 1982 (419. zkia.)

Artikulu kopurua: 249



- Euskera teknikoa dela eta, 1972.
- Erlatibitatearen teoria eta philosophia, 1973.
- Babilonia, Euskal Herria eta numeroak, 1973.
- Nuklear zentralak Euskal Herrian, 1973.
- Eguzkitiko energia eta etorkizuna, 1974.
- Bilboko Unibertsitatean errektorea aukeratzen, 1976.
- Kirolak eta dopaia, 1976.
- Iberduero, Iberduero! Hori ez genuen espero, 1977.
- Adio Konstituzio!, 1978.
- Bizkaiera ere euskara batua da, 1982.

Argitalpen digitala



Iker/Jagon-Tegia

- >> Sarrera
- >> Iker-Tegia
- >> Jagon-Tegia
- >> Bildumak
- >> Aldizkariak

Anaitasuna aldizkaria



Anaitasuna aldizkaria 30 urtetan zehar argitaratu zen: 1953ko ekainetik 1982ko apirilera. Hemeroteka honetan, aldizkariak urte horietan zehar argitaratu zituen 420 zenbakiak topatuko dituzu: 1.200 lankide inguruk idatzitako 6.395 artikulua, hain zuzen ere. Zenbaki horietako edukiak lau modu desberdinetan sailkatuta daude: egile, gai, artikulua eta urteen arabera.

Aldizkariaren digitalizazio prozesua Jakinek burutu du. Prozesu horretan zehar sortutako zenbait ohar tekniko eta metodologiko erantsi dituzte egileek, egitasmoaren burutzapenak eman dituen datu eta arazo nagusiak bidu eta argitze aldera.

Horrekin guztiarekin batera dator, bestalde, Joan Mari Torrealdak aldizkariaren historiari eta edukiei buruz egindako azterlan bat ere.

Azterketa.pdf (363,20 Kb)

Zenbait ohar tekniko eta metodologiko.pdf (90,58 Kb)

Aurkibideak: [Egileka](#) | [Gaika](#) | [Artikuluka](#)

Zenbakiak:

1953-1959 (1-67)

1953 - 1954-1955-1956-1957-1958-1959

1960-1969 (68-179)

1960-1961-1962-1963-1964-1965-1966-1967-1968-1969

1970-1979 (180-393,394)

1970-1971-1972-1973-1974-1975-1976-1977-1978-1979

1980-1982 (395-419)

1980-1981-1982

Artikuluak egileka:

[Egile ezezaguna] - A - B - C - D - E - F - G - H - I - J - K - L - M - N - Ñ - O - P - Q - R - S - T - U - V -
W - X - Y - Z

Basajaun [Altuna, Josu "Basajaun"]: **Azkarate barriro txapeldun?**, 159. zk., 1968-04-30: 5.

Baldatika [Azurmendi, Joxe]: **Edozer gauza kultural**, 258. zk., 1973-07-31: 4.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Orthographia tekhniko eta szientifikoaz**, 275. zk., 1974-05-15: 12.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Kultura nazioartean. J. Jofforen Puxtarri zakutoa, Munduan barrena**, 313. zk., 1976-03-15: 17.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Kultura. Jouve hil zen, Munduan zer**, 317. zk., 1976-05-15: 25.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Teatroa: Les grands sentiments, Munduan barrena**, 326. zk., 1976-10-15: 28-29.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Gruppo Teatro Libero, Munduan barrena**, 326. zk., 1976-10-15: 29-30.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **111 Nerudaren amodiozko karta, Munduan barrena**, 327. zk., 1976-11-01: 28.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Art brut, Munduan barrena**, 327. zk., 1976-11-01: 29.

Baldatika, Gregorio [Azurmendi, Joxe]: **Mirande, eskandal-harria, Jon Mirande**, 353. zk., 1977-12-15: 37.

B., Antonio: **Liburu berriak**, 390. zk., 1979-10-16/31: 36-37.

B.E.A.: **Abortuagatik juzkatuak, Euskal Herria**, 389. zk., 1979-09-16/10-15: 6-7.

B.K.: **San Iñaziok egin ez ebana**, 157. zk., 1968-03-30: 3.

B.K.: **Hitzak eta egintzak**, 365. zk., 1978-06-15/30: 32-33.

Badiola, Imanol: **Ez dok amairu, ez eta ez, Mundu biribila**, 180. zk., 1970-01-15: 3.

Badiola, M.: **Nora eraman nahi gaituzte?, Iberian zer**, 319. zk., 1976-06-15: 30.

Badiola, R. [Badiola, Ricardo]: **Mendigoizaleak, Herri bat, hizkuntza bat**, 206. zk., 1971-02-28: 9.

Berriatua, Imanol: **Liturgia barria**, *Kristiñau erriko barriak*, 145. zk., 1967-05: 4.

Berriatua, Imanol: **Katoliku Aziñoa Munduan**, *Kristiñau erriko barriak*, 146. zk., 1967-06: 4.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi Zure Izkuntzea*, 180. zk., 1970-01-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 182. zk., 1970-02-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 183. zk., 1970-02-28: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 184. zk., 1970-03-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 185. zk., 1970-03-30: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 188. zk., 1970-05-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 189. zk., 1970-05-30: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 190. zk., 1970-06-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 191. zk., 1970-07-15: 11.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure izkuntzea*, 193. zk., 1970-08-15: 11.

Berriatua, Imanol: **Bizkalera idatziazen batasuna "Anaitasuna" aldizkarirako (1970)**, 194. zk., 1970-08-30: 8.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure hizkuntza*, 195. zk., 1970-09-15: 15.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zure hizkuntza*, 196. zk., 1970-09-30: 15.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 199. zk., 1970-11-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 200. zk., 1970-11-30: 19.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zure hizkuntza*, 201. zk., 1970-12-15: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 202. zk., 1970-12-30: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 203. zk., 1971-01-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 204. zk., 1971-01-30: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 205. zk., 1971-02-15: 15.

Berriatua, Imanol: **[Izenbururik gabe]**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 206. zk., 1971-02-28: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 207. zk., 1971-03-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 209. zk., 1971-04-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 210. zk., 1971-04-30: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 211. zk., 1971-05-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure Hizkuntza*, 212. zk., 1971-05-30: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Hikasi zeure Hizkuntza*, 215. zk., 1971-07-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 216. zk., 1971-08-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 217. zk., 1971-08-30: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 218. zk., 1971-09-15: 15.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 219. zk., 1971-09-30: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 220. zk., 1971-10-15: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 221. zk., 1971-10-30: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 222. zk., 1971-11-15: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 223. zk., 1971-11-30: 15.

Berriatua, Imanol: **I. Hiztegia**, *Ikasi zeure hizkuntza*, 224. zk., 1971-12-15: 15.

Anaitasuna aldizkaria

<< Hasierako orria

<< Urtea: 1975 >>



289. zenbakia

[.Jaitzi PDF formatuan](#) - [.Jaitzi MS-Word formatuan](#)

Torrealdai, Joan Mari [Torrealdai, Joan Mari]: **Epe berri bat?**, 289. zk., 1975-01-15: 1-2.

[Egile ezezaguna]: **Aurtengo "Karmel" sarirako deia**, 289. zk., 1975-01-15: 2.

Goia, Joanes; Urliaga, Patxi [Intxausti, Joseba; Kintana, Xabier]: **[Izenbururik gabe]**, *Iberia Express*, 289. zk., 1975-01-15: 3.

Armendaritz; Egurrola, Bittor; Gereño, Xabier; Haizager, Leon; Lantziri, Gexan; Lekerika, Joanes; Mendizabal, Joan Mari; Ortuondo, Luis Mari; Uribarren, P. [Kintana, Xabier; Egurrola, Bittor; Gereño, Xabier; Haizagerre, Leon; Alfaro, Gexan "Gexan Lantziri"; Torrealdai, Joan Mari; Mendizabal, Joan Mari; Ortuondo, Luis Mari; Uribarren, Patxi]: **Euskal Herria. Ipar Aldea. Gipuzkoa. Bizkaia**, *Hementxe denok*, 289. zk., 1975-01-15: 4-7; 10.

Torrealdai, Joan Mari; Mitxelena; Larresoro [Torrealdai, Joan Mari; Mitxelena, Koldo; Alvarez Enparantza, Jose Luis "Txillardegil"]]: **Mitxelena eta Larresoro**, *Hementxe denok*, 289. zk., 1975-01-15: 8-9.

Aduriz, Jose A.; Iturrioz, Joan J. [Aduriz, Jose Antonio; Iturriotz, Joan Joxe]: **[Izenbururik gabe]**, *Fedea eta ekintza*, 289. zk., 1975-01-15: 11.

Altzibar, Joan; Torrealdai, Joan Mari; Urliaga, Patxi [Torrealdai, Joan Mari; Torrealdai, Joan Mari; Kintana, Xabier]: **[Izenbururik gabe]**, *Herrialde guztietan*, 289. zk., 1975-01-15: 12-13.

[Egile ezezaguna]: **Gurutzegrama (53)**, 289. zk., 1975-01-15: 14.

[Egile ezezaguna]: **[Izenbururik gabe] [Binetak]**, *Zapaburua. Euskaldun Rh-dunen umore orria*, 289. zk., 1975-01-15: 14.

Berriatua, Imanol: **Hiztegia**, *Ikas zeure hizkuntza*, 289. zk., 1975-01-15: 15.

Agirrebaltzategi, Paulo: **Euskal Unibertsitaterako bidetan**, 289. zk., 1975-01-15: 16.



290. zenbakia

[.Jaitzi PDF formatuan](#) - [.Jaitzi MS-Word formatuan](#)



Iker/Jagon-Tegia

>> Sarrera

>> Iker-Tegia

>> Jagon-Tegia

>> Bildumak

>> Aldizkariak

Anaitasuna aldizkaria



Anaitasuna aldizkaria 30 urtetan zehar argitaratu zen: 1953ko ekainetik 1982ko apirilera. Hemeroteka honetan, aldizkariak urte horietan zehar argitaratu zituen 420 zenbakiak topatuko dituzu: 1.200 lankide inguruk idatzitako 6.395 artikulua, hain zuzen ere. Zenbaki horietako edukiak lau modu desberdinetan sailkatuta daude: egile, gai, artikulua eta urteen arabera.

Aldizkariaren digitalizazio prozesua Jakinek burutu du. Prozesu horretan zehar sortutako zenbait ohar tekniko eta metodologiko erantsi dituzte egileek, egitasmoaren burutzapenak eman dituen datu eta arazo nagusiak bidu eta argitze aldera.

Horrekin guztiarekin batera dator, bestalde, Joan Mari Torrealdak aldizkariaren historiari eta edukiei buruz egindako azterlan bat ere.

[Azterketa.pdf](#) (363,20 Kb)

[Zenbait ohar tekniko eta metodologiko.pdf](#) (90,58 Kb)

Aurkibideak: [Egileka](#) | [Gaiak](#) | [Artikuluka](#)

Zenbakiak:

1953-1959 (1-67)

[1953](#) - [1954](#) - [1955](#) - [1956](#) - [1957](#) - [1958](#) - [1959](#)

1960-1969 (68-179)

[1960](#) - [1961](#) - [1962](#) - [1963](#) - [1964](#) - [1965](#) - [1966](#) - [1967](#) - [1968](#) - [1969](#)

1970-1979 (180-393,394)

[1970](#) - [1971](#) - [1972](#) - [1973](#) - [1974](#) - [1975](#) - [1976](#) - [1977](#) - [1978](#) - [1979](#)

1980-1982 (395-419)

[1980](#) - [1981](#) - [1982](#)

◀ atzera ▲ gora

Artikuluak gaika:

1. Filosofia - 2. Erijihoa - 3. Kultura - 4. Hizkuntza - 5. Literatura. Liburua - 6. Hezkuntza eta irakaskuntza - 7. Politika eta gizartea - 8. Ekonomia - 9. Zientzia - 10. Komunikabideak - 11. Herriak. Eskualdeak. Lurraldeak. Geografia fisikoa eta giza geografia - 12. Albistegiak - 13. Anaitasunaren inguruan - 14. Orotarik

4. Hizkuntza

4.1. Hizkuntzalaritza. Soziolinguistika

Idoyaga, Xabier: **Japones berbetea**, *Eguzkialdeko barriak*, 169. zk., 1968-09-30: 8.

Lazkano Mendizabal [Azurmendi, Joxe]: **Albanera Literario Batua (I)**, 257. zk., 1973-06-30: 9.

Lazkano Mendizabal [Azurmendi, Joxe]: **Albanera Literario Batua (I)**, 258. zk., 1973-07-31: 9.

Lazkano Mendizabal [Azurmendi, Joxe]: **Albanera literario batua (2)**, 258. zk., 1973-07-31: 10.

[Egile ezezaguna]: **[Izenbururik gabe]**, *Tantaka*, 325. zk., 1976-10-01: 4.

Eguzkitza, Andolin: **Robert Austerlitz-ekin hizketan**, 343. zk., 1977-07-01: 32-33.

Eguzkitza, Andolin: **Gunter Brettschneider-ekin hizketan**, 360. zk., 1978-04-01: 21-23.

4.2. Hizkuntza gutxituak

Aita Imanol [Berriatua, Imanol]: **Irlandako verbetea**, *Aita Imanol-ek Irlandatik*, 93. zk., 1962-09: [4-5].

Gomis, Juan: **Katalanez lenengo asterokoa**, 139-140. zk., 1966-09/10: [8].

Zubeldia, Iñaki: **Eliezer Ben Yehuda. "Hebreo" izkuntzaren sortzaillea**, 147. zk., 1967-07: 1.

Zubeldia, Iñaki: **Eliezer Ben Yehuda. Idazle eta Jakintsu (II)**, 150. zk., 1967-09: 1.

[Egile ezezaguna]: **Izkuntzeagaitik burrukak Lovainako Unibersidadean**, 155. zk., 1968-02-15: 1.

Abello Durán, Maria-Ture; Abello Esteve, Jordi eta 14 izen geiago: **Serrat dala ta eztala**, 160. zk., 1968-05-15: 5.

Solabizkar: **Valencian... Valencian Valencieraz? Bai Zera!**, *Jakin eta Ekin*, 178. zk.,

4.3.4. Euskalkiak eta Euskara Batua. Euskaltzaindia

Iztun: **Euskaltzaindiak prestatuiko jaialdia giro bero eta atsegiñ baten azpian ospatu zan Arriaga Teatroan. Ramon Menendez Pidal jaunaren karta bat artu zan bere oniritzia emonik**, 32. zk., 1956-03/05: [16-17].

[Egile ezezaguna]: **Euskaltzaleen Bilkura Arantzazun Euskaltzaindiaren itzalpean (1956-ko irailaren 14-tik 16-ra)**, 33. zk., 1956-06/07: [10].

Iztun: **Arantzazun euskaltzaleen bilkurak Euskaltzaindiaren itzalpean**, 34. zk., 1956-08/09: [3-5].

[Egile ezezaguna]: **Euskaltzainditik**, 38. zk., 1957-05/06: [6].

Berriatua [Berriatua, Imanol]: **Euskal Akademia**, 61. zk., 1959-06: [1].

[Egile ezezaguna]: **Declaración de la Academia Vasca acerca del vocabulario del euskera**, 61. zk., 1959-06: [4].

[Egile ezezaguna]: **Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz**, 61. zk., 1959-06: [5].

[Egile ezezaguna]: **Euskal sariketea amar urtetik amairu urterako neska-mutil Bizkaitarrentzat**, 62. zk., 1959-07: [8].

[Egile ezezaguna]: **Euskaltzaindia lanean**, 68. zk., 1960-01: [1].

[Egile ezezaguna]: **Seme alabak eta euskerea**, 70 [1]. zk., 1960-03: [1].

Aita Imanol [Berriatua, Imanol]: **Eskerrak danori, Aita Imanol-ek Bermeotik**, 85. zk., 1961-12: [4-5].

[Egile ezezaguna]: **Euskaltzaindiaren agiria euskal berbeeri buruz**, 132. zk., 1966-02: [4].

Sabin: **Zertako morokil ori?**, 147. zk., 1967-07: 11.

Erkiaga, Eusebio: **Euskaltzaindiaren deia. Euskal aldizkarien zuzentzaileei eskaria, idazle batzuen zabarkeriz**, 149. zk., 1967-09: 8.

Otsolarre: **«H» dala-ta Sabin-eri**, 152. zk., 1967-12: 7.

Sabin: **«H» barik, «Otsolarre»ri**, 153. zk., 1967-12: 15.

Otsolarre: **Itzak, utsak. Sabiñeri**, 156. zk., 1968-03-15: 2; 7.

Gereño, Xabier: **Euskera batu baten alde**, 157. zk., 1968-03-30: 1.

Kamiñazpi [Etxaburu, Jose Maria "Kamiñazpi"]: **Euskerearen batasuna**, 160. zk., 1968-05-15: 4.

San Martin, J. [San Martin, Juan]: **Euskerearen batasunaz. Euskaltzaindiaren asmoa**, 163. zk., 1968-06-30: 1.

[Egile ezezaguna]: **Ermuko Euskal Idazleen Jardunaldietako erabagiak**, 164. zk., 1968-07-15: 4.

Villasante, L. [Villasante, Luis]: **Batasunaren arrazoiak**, 166. zk., 1968-08-15: 5.

Amatiño [Aranberri, Luis Alberto "Amatiño"]: **Batasuna dala ta**, 166. zk., 1968-08-15: 5.

Villasante, L. [Villasante, Luis]: **Euskerearen batasunaz barriri**, 167. zk., 1968-08-30: 2.

[Egile ezezaguna]: **Batasuna**, 168. zk., 1968-09-15: 1.

Azurmendi, Jose [Azurmendi, Joxe]: **Euskal Akademiaren urrezko ezteguetan**, 168. zk., 1968-09-15: 6-7.

[Egile ezezaguna]: **Euskal Akademiaren batzar nagusia Arantzazun. Urrillaren 3-5**, 168. zk., 1968-09-15: 8.

Euskaltzaindiaren Agiriaren Batasunaz. Akademiaren batasunaz, 174. zk., 1968-10-20:



Iker/Jagon-Tegiak

- >> Sarrera
- >> Iker-Tegia
- >> Jagon-Tegia
- >> Bildumak
- >> Aldizkariak

Anaitasuna aldizkaria



Anaitasuna aldizkaria 30 urtetan zehar argitaratu zen: 1953ko ekainetik 1982ko apirilera. Hemeroteka honetan, aldizkariak urte horietan zehar argitaratu zituen 420 zenbakiak topatuko dituzu: 1.200 lankide inguruk idatzitako 6.395 artikulua, hain zuzen ere. Zenbaki horietako edukiak lau modu desberdinetan sailkatuta daude: egile, gai, artikulua eta urteen arabera.

Aldizkariaren digitalizazio prozesua Jakinek burutu du. Prozesu horretan zehar sortutako zenbait ohar tekniko eta metodologiko erantsi dituzte egileek, egitasmoaren burutzapenak eman dituen datu eta arazo nagusiak bidu eta argitze aldera.

Horrekin guztiarekin batera dator, bestalde, Joan Mari Torrealdak aldizkariaren historiari eta edukiei buruz egindako azterlan bat ere.

[Azterketa.pdf](#) (363,20 Kb)

[Zenbait ohar tekniko eta metodologiko.pdf](#) (90,58 Kb)

Aurkibideak: [Egileka](#) | [Gaika](#) | [Artikuluka](#)

Zenbakiak:

1953-1959 (1-67)

[1953](#) - [1954](#) - [1955](#) - [1956](#) - [1957](#) - [1958](#) - [1959](#)

1960-1969 (68-179)

[1960](#) - [1961](#) - [1962](#) - [1963](#) - [1964](#) - [1965](#) - [1966](#) - [1967](#) - [1968](#) - [1969](#)

1970-1979 (180-393,394)

[1970](#) - [1971](#) - [1972](#) - [1973](#) - [1974](#) - [1975](#) - [1976](#) - [1977](#) - [1978](#) - [1979](#)

1980-1982 (395-419)

[1980](#) - [1981](#) - [1982](#)

289.pdf

1 / 16 62% Find

289.doc (irakurtzeko soilik) - OpenOffice.org Writer

Eitxategia Editatu Ikusi Txertatu Formatua Taula Tresnak Leihoa Laguntza

EPE BERRI BAT?



Ikusi ahal izan dugunez, ihazko urtea amaitzen ari zelarik eta urte berriaren haseran berdin, nolabait etorkizuna asmatu nahiz zebiltzan aldizkariak. Aurtengo urtea ihazkoa baino hobea ala txarragoa izango ote den, sortuko bide* zaizkigun eskasiak eta gehiegikeriak neurtu nahiz, etc.

Asmatzea eta igartzea* ez baina azterketa dakargu gaur horri hauetara. Zenbaki honen ardatz, nire ustetan, L. Mitxelena eta Larresoro jaunek egindako erantzuna da. Horien gerizaren pean, euskal kulturgintzan kritikaren arazoa zertan den idazteko, lerro bat edo beste erabili nahi nuke.

Salakuntza bat. Gure kultur alorrean, metodologia serio baten izenean eta sistematikoki eginikako azterketak falta zaizkigula, sarritan entzun eta irakurri dugu, eta behin baino gehiagotan esan ere egin dugu. Baldintza horik* ongi betetzen duen liburu bat da hain zuzen «Begiarmen» delakoaren SEI IDAZLE PLAZARA («Jakin», 1974).

Gure kultur mugimenduaren azkeneko 10-15 urte hauk* estudio gai bilakatu* zaizkigu. Eta, nire ustez, lehengoekin konparatuz, ba da garai horretan berririk eta aztertzeorik, politikaren eta herrigintzaren sozio-kulturazko dinamikaren aldetik bereziki.

Kultur mugimendu honen azterketetan nire gustukoena, Jose Azurmendik ZERUKO



AÑO I - N.º 1 Suplemento a la hoja "ANAITASUNA" de Guipúzcoa Junio 1953

AGURE



Suplemento a la Hoja ANAITASUNA de Guipúzcoa III URTEA - N.º 25-26

KRISTIÑAU TA ZIN

-Deabrua baintz...- esan e demoniaoa baintz, eta mundu guzti Gizonen helarrik erejiborez gidu daitez? Edo euren begien a euren animak inperurako pietate e jatorrierraren eta balearen kontra be rozeok, eta gizonak jainko bark, ta rrean eukiteko?
-Ez ez neuzke olakorik egingo balaizkoa Zer egingo zenke ordain? Olanik, nire asmo ta amez gutxi
-Ez dakit egiakok eta diren l dabe Perioliktarren indarra ta ald da mugduaren Errege. Zer diru be piotomak. Eta pentsan ostean, egin Franziako nobelistak Letistuki osp Presse est la Tout-puissance terr Ugaraba Algoritidom.

Guzti au egin da. Baiña, demo yakon, nire usiez. Inperuko deab egingo tenke gizon zintzoen argien bonandu, alkar ondo arie ezean.
Eta guk Katolikok, zer egingo erak, gura labena egin daizen? Ez gure kontzientian arin euzakaz.
Lan aundia dauko gu begien gatzidia Egunaren baito egunen ost Aste egin dogo aspiakok depoeza e dogo izan gura eia?
Lan egin dauzun, gure erriaren egin, eta dauok alhartuta.
Orke da gure asmo...
Orlaitate gipuzkeraz agerit u omagz arri eiaz. Irakurri eiaz, Zabildu eiaz. Eta jainokak lagun

Kennedy: zuzentasuna Fidel Castro: "teddy boy"?



Ereedy indabarkit, bere izenag berbatlan, alai giza ozen eta ederak ozen dau?
"Imperio indabarkit ta dote Euzako baito ozenagoma baita be berag agelagan, ber gar". Kennedy, bere indar guztiegi, ahar lagunadara det egin dabilen. Beragunk gortuzan azuritien derautatik aldiz,
"Imn adieratu ozen berde, itaragone egiar hat ozen be dau ozenitatu ozenan konfidentzia lake ozenar. Euzak lake berri indarag beragaz indarreg egiako balua. Zite, bere indarag berri indarreg indarreg indarreg, ta beragatide da. Indarregatid indarag. Ozen, euz dau Kennedy. Gizonen beragatid inbuletan pobertezan guz- in denoikin ozenan, baita beste alde beretik, indarreg ozen dena. Gortuzan indar indarreg ber bi bal bere indaragatid ber dogo", ozen dau ipur-americako ber, dakarik. Indarreg berri indarreg. "Lage egiatoko aldizko ber dogo indarregatid ozenan, egiatik puz, ozena dabilen". Zortuzan: gizonen denoikin ireragaz, indarregatid gortu. Kennedy gortu dogo berri indarreg indarreg. Euz indarregatid berri indarreg ozena. Aldiz, berri euz ozen dau ta egiak indarreg indarregatid berri indarregatid.



John F. Kennedy. Aho or leuzago presidente katolikoa Ipur-an rikian.

anaitasuna

Corretila Zuzitila (E), 1965 - XI URTEA - N.º 101 - Dep. 84. 100-100 - Zuzendaritza: Bilbao - Anaitasuna Tradukzioa.

- MARTXEN ZAPATAN
- 500.000 KANINDA SEI ANDERK ZASO
- YVESSEN GORRIKIN ZEA
- DIBETZAE OROTIRO ZAMA



VII URTEA - N.º 74 22 EGITZA (2) 1961



SEPOSITO LEGAL 1.093-1959

Erromak besoak zabalik

Erromak besoak zabalik... Erromak besoak zabalik... Erromak besoak zabalik...

Danak dauke sal zentzuzatzaileak zikuzteak; berri zite onarri aho probeturiat atar Zitegiatik, l egin ber ditue Orreitarako, zite ezagutu ber e- urrikak eta kez- gero aniaz nag biziakoko probte eia adoren enoi

Erromak besoak zabalik... Erromak besoak zabalik... Erromak besoak zabalik...

anaitasuna

A - N.º 97 XI URTEA - N.º 101 - Dep. 84. 100-100

INDAR

anaitasuna

419. alea AHIRILA 100 PEZETA

anaitasuna... anaitasuna... anaitasuna...

anaitasuna

1981.eko - IRAILA-URRIA - 414. ALEA - 100 PZTA.

NUCLEAR? NO GRACIAS

NUCLEAR? NON GRACIAS

NUCLEAR? MAN TRUCKER

NUCLEAR? NO GRACIAS

NUCLEAR? NO GRACIAS

NUCLEAR? NO GRACIAS


NUCLEAR? NO GRACIAS



AMNISTIA BAI ARABANCHEL... EZ

Amnistia bai Arabanchel... ez... Amnistia bai Arabanchel... ez...

DOSSIERRA iparraldeaz



hainbat aburu

hainbat aburu... hainbat aburu... hainbat aburu...

EVA SERRAekin hizketan


Adio Kattalina

OSKORRIK bere diskoa surteztan digu

anaitasuna

1977.EKO UZTAILAREN 1.EKOIA 343.ZENBAKIA 35 PTA

KOLORE KONTUTAN NI BAINO ABILAGOA HAIZ TXO!



OIÑARRIAK



Oiñarriak... Oiñarriak... Oiñarriak...